



Mugimendu anarkistaren mendea?

Occupy Wall Street eta herri mugimendu global berrira
hurbilpena David Graeberren ikuspuntutik

“A” xehe batekin idazten da alternatiba

Bestelako mundua posible da” egiten zuten aldarri manifestariet mundializazioaren aurkako mugimenduaren hastapenetan. “Posible” hitza “beharrezko” berbarengatik aldatu dela dirudi orain, bai behintzat herrialde garatueta biztanle arrunten artean –Occupy mugimenduak “%99a” izendatzen duen talde zabal horretan, alegia–. Askori neoliberalismo hitza ez zaigu trabatzen jada, haren ondorioak geroz eta gordinago bizi ditugu azken urteotan, finantza eta ekonomia krisia hasi zenetik agindu duten eskubide sozialen murrizketak medio; eta hasierako haserrea desesperazio bihurtu aurretik, alternatibak premiazoak dira.

Mundu osoan xede horrekin antolatu diren herritar sareek, izan Occupy, M15 edo beste hainbat esperientzia lokal, ezaugarri batzuk partekatzen dituzte, hala nola, auto-antolakuntza, politika aurre-figuratiboak, deszentralizazioa... Eta, zenbaki honen ardatz gisa hartu dugun David Graeber antropologoak seinalatzen duen moduan, praktika horiek hurbilago daude anarkismoaren postulatuetatik marxismotik baino –“a minuskulaz” idazten den anarkismoa deitzen dio berak–.

Occupy mugimenduaren inspiratzaileetako bat izan zen egilearen ideietara hurbilpen bat proposatu dugu LARRUN honetan, XX. mende amaierako altermundialismotik plazak hartu dituzten herri mugimendu berrietara.

Gainera, 2004an Andrej Grubacic-ekin elkarlanean *ZNet* webgunean argitaratu zuen “Anarkismoa, XXI. mendeko mugimendu iraultzailea” artikulua itzuli dugu.



■ **Egileak:** Gorka Bereziartua Mitxelena eta Pello Zubiria Kamino

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAren 2.412. zenbakiarekin banatua, 2014ko apirilaren 20an)



DAVID SHANKBONE / CC-BY

Occupy Wall Street mugimenduak sistema kapitalistaren bihotz-bihotzera eraman zuen duela hiru urte bestelako mundu baten aldarria. Protesta horiek anarkismotik aztertu ditu David Graeber antropologoak.

Hil kanpaiak jo izan dizkiote mugimendu altermundialistari behin baino gehiagotan, ikusita zein ibilbide gorabeheratsua izan duen 1999an Seattlen Munduko Merkataritza Erakundearen aurkako protesta jendetsuen ostean hasi zen goibilera, manifestazio, istilu eta foro alternatiboen zikloak XXI. mende hasieran. Eta hala bizi izan dute bestelako mundu posiblearen alde urteotan beren burua antolatu dutenek ere. Baina protestek jaso duten arreta mediatikoa gorabehera, mugimenduetan une batean edo bestean parte hartu duten pertsona kopuruaz despit, kapitalen mugagabeko zirkulazioak munduko biztanleen gehiengoari egindako kalteak izan du ondoriorik herritarren artean. Gaur egun Seattlen pentsaezina zen kontzientziazio gradua dago herrialde

garatuetan. Gehiago dira orain, duela hamabost urterekin konparatuz gero, bestelako mundua posible bakarrik ez, beharrezko, are, ezinbesteko dela uste duten pertsonak.

Ez da etiketa bat, ez da partidu bat, ezta mugimendu antolatu bat ere –hitzaren zentzu klasiko eta hierarkikoenean behintzat–; ez dira gehiago “antiglobalizazio” edo “altermundialista” edo dena delako. Zerbait zabalagoa da, mundu osoan gertatzen ari da eta manifestazio lokal ugari ditu. Duela hiru urte AEBetan, sistema kapitalistaren bihotz-bihotzean, Occupy Wall Street izena hartu zuen. Eta mugimendu horren inspiratzaileen artean dago LARRUN honen ardatz izango den David Graeber antropologo estatubatuarra.

SEATTLEK WALL STREET OKUPATZERA, HEGO AMERIKATIK PASA ONDOREN

2011ko abenduan gaude, hiru hilabete pasa dira milaka lagunek New Yorkeko Zuccotti parkean kanpaldia hasi zutenetik, enpresa handiek gobernuetan duten eraginaren eta desberdintasun sozialen kontrako protestan. Ross Wolfek elkarrizketa egin dio Graeberri, honen *Fragments of an Anarchist Anthropology* (Antropologia anarkista baten txatalak, 2004) eta *Debt: The First 5000 years* (Zorra: lehenbiziko 5.000 urteak, 2012¹) liburuak ardatz hartuta. *Platypus 1917* webguneak argitaratu zizun elkarrizketa horren bertsio laburtu bat.² Bertan Graeberrek testuingurua ematen dio Occupyri, sistemaren aurka antolatzeke azken hamarkadan ibili den aldapan kokatzen du: “Mugimendu altermundialistako jende askok, neuk ere bai, sentitu dugu gure ahaleginaren jarraipena dela, sekula ez baikenuen pentsatu altermundialismoa bukatuko zenik. Urtero jotzen genuen buruarekin pareta, esanez ‘bai, oraingoan benetan itzuli gara berriz. Ai, itxaron, igual ez’. Gutako asko pixkanaka etsitzen hasi zen, egoerak berriro gora egingo ote zuen guk kalkulatzeko genuen moduan. Baina gertatu egin zen, gizarte demokratiko batek izan beharko lukeenaren eredu aurre-figuratu bat sortzen ahalegintzeko taktiken konbinazio gisa, protesta edo ekintzak antolatzeke bide gisa, gobernu egitura ez-demokratikoaren kontra”.

Occupy eta XX. mende amaierako mugimendu altermundialista: ez dira gauza bera, baina soka berdinarekin bi korapilok lotzen ditu Graeberren ustez, zorraren krisi bereko bi momenturi emandako erantzunak dira. “Esan liteke mundua 1960ko hamarkadatik zorraren krisipean bizi dela modu batera edo bestera. Denbora honetan, gehienetan krisia munduaren Hegoaldera desbi-

deratu izan da, eta neurri batean atzeratu egin da Ipar Atlantikoan, ekonomiarik sendoenak dauzkaten herrialde eta lekuetan, kreditua usatuz jendearen ezinegona baretzeko”. Baina atzeratzea eta indargabetzea gauza diferenteak dira. Gainera, mugimendu altermundialista gai izan da erantzunak artikulatu eta Mundu Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtzaren politikak errefusatzeko, baita bi erakunde horiek euren eremuetatik kanporatzeko ere, Hego Amerikako zenbait estatuk egin duten moduan.

“Eta orduan etxera etorri zen”, dio Graeberrek. 2008tik hona ikusten ari gara: finantza krisia deklaratu eta politika neoliberalak muturrera eramaten dituzte ekonomia guztia gutxi batzuen interesen zerbitzura jartzeko. Akabo ongizatea edo, bestela esateko, gutxieneko bizi baldintzak herrialde garatueta bizi bizi. Mezua da: “Gure aukeren gainetik bizi izan gara, orain gerrikoa estutu beharra dago”. Ahal duena salba dadila, herritar arruntari, biztanleriaren %99ari, nola edo hala bizirautea beste aukerarik ez omen zaio geratzen eszenario berrian.

Edo akaso ez. Duela hamar urte Hego Amerikan aurrean zeukaten gauza berari aurre egin behar. Hori izan zen Occupy bezalako mugimenduen xedea eta hori dela-eta, ez da kasualitatea Graeberren ustez, altermundialismoak erabilitako formen antzekoak baliatu izana: zuzeneko demokrazia, politika aurre-figuratiboa –sortu nahi den mundua gaur eta hemen martxan jartzen saiatzea, alegia– eta ekintza zuzena. Baina ez Hego Amerika txiroan, ustez aberatsa zen New Yorken erdi-erdian baizik. Edo Madril suminduan, Atenas sutuan, Parisen, Londresen.

Isil daitezela kanpaiak, gorpu hori hilda egoiteko asko mugitzen ari da eta.

1 Liburu honen inguruan irakurri ARGIAren 2.337. zenbakian argitaratu genuen “5.000 urte zorpean baina orain barkamenik ez” artikulua: <http://www.argia.com/argia-astekaria/2337/5000-urte-zorpean-baina-oraingoan-barkamenik-ez>

2 <http://platypus1917.org/2012/01/31/interview-with-david-graeber/>

EZKERRAREN BILA WORLD TRADE CENTERREKO KONDARRETAN

Neoliberalismoa da mugimenduok borrokatzen dutena eta Graeberrek argi dauka kapitalismo garaikidea ardazten duen pentsamolde hori gehiago dela politikoa ekonomikoa baino. Baita erreakzio gisa sortu zela ere: “Zerikusia du 1960ko hamarkadan mugimendu sozialek lortu zituzten garaipenekin, izan gerraren kontrako mugimenduek, feminismoak, kontrakulturak eta abarrek. Honek ekarri zuen halako zigor bat; garaipen politikoa lortzeko, eragotzi zioten edozein mugimendu soziali sinestea arrakasta lortu zezakeenik kapitalismoari aurre eginez edozein modutan edo harentzako alternatiba bideragarria erakiz”.

Eta antropologo anarkistaren ustez, joera hori indartu egin zen New Yorkeko Dorre Bikien aurkako atentatuez geroztik: “Egia da irailaren 11ko hura une oso egokian iritsi zela ere, eta eraso hura gertatu ez balitz haiek saiatuko zirela asmatzen beste aitzakiaren bat itsasoz haraindiko gerra pizteko. Zeren badirudi hori dela gertatzen dena, azkenik oinarrietako mugimendu politikoak ernetzen ikusten dituzunean, izan eskubide zibilen aldekoak, antinuklearrak, justizia globalaren aldekoak edo edo-zelakoak. Niri azpimarragarria iruditzen zait zera: zein fite gertatzen diren bata bestearen ondoren, klase agintaria panikatzea eta sentitzea kontzesio handiak egin behar dituela, eta ia beti hastea urruneko gerraren bat”.

Berlingo Harresia erori osteko mundua da, “terrorismoaren kontrako gerra” bezalako kontuez hitz egiten duen mundua, ezkerrik eta eskuinik ez dagoela aldarrikatzen duena. Bukatu dira ideologiak? Auzi horren inguruan galdetuta, alegia, ea



“Sentitzen dugu! Eskatu zenuen bizi-estiloa ez zaigu geratzen biltegian” dio Banksy artist ezagunak Londresko kanto batean egindako graffiti honek. Graeberren ustez 1960tik bizi gara zorraren krisian baina orain arte sistemak “etxetik” kanpo desbideratu du problema, munduaren hegoaldera. Eta hori egitea ezinezko gertatu zaionean, zenbait estatuk Nazioarteko Diru Funtsari eta Mundu Bankuari ezetz esan diotenean, finantza krisia deklaratu dute herrialde garatueta. Horren ondorioz etorri da, antropologoaren ustez, “ongizate estatu” gisa ezagutzen genuenaren suntsitzea.



David Graeber

Egiten dugun guztia ez dago kapitalismoaren logikari lotuta. Batzuek diote egiten dugunaren %30-%40 baizik ez dagoela kapitalismoaren logikaren mende lotua. Komunismoa dagoeneko existitzen da bata bestearekin milioika maila ezberdinetan dauzkagun harreman gertukoetan”

Occupy bezalako mugimendu batean ezker-eskuin dikotomiak zentzurik ba ote duten Graeberrek baietz erantzuten du, baina ñabardurekin: “Badago joera tamalgarri bat identifikatzeko ‘Ezkerra’ ez ideia edo ideal multzo batekin baina egitura instituzional batzuekin. Indibidualista, anarkista, intsurrekzionista eta primitibista askok Ezkerra deitzen diete alderdi politiko ezkertiarrei, sindikatuei, modu orokorrean ‘bertikalak’ deitu ditzakegunei, eta ulertzen dut zergatik egon daitekeen jendea uzkur norbere burua horiekin parekatuta ikustearen aurrean. Baina aldi berean gutxienez II. Mundu Gerraz geroztik ari gara entzuten eskuinaren eta ezkeraren arteko ezberdintasunak ez diola axola. Ia bost urtero esaten den zerbait da, deklarazio handiak pizten dituen. Haiek hain sarritan esan behar izateak berak erakusten du ez dela egia. Antzeko deklarazio handiak esanez aurrerazaleen narratiba osoa bukatu dela. Belaunaldi oro egiten dute gauza bera. Baina zertarako iragarri behar lukete belaunaldi oro benetan bukatua balitz? Nire ustez kontzeptu horiek bizirik daude”. Hau da, Graeberren ustez, Occupy bezalako mugimenduek hizkera inklusiboa erabiltzen badute ere, joera politiko zehatzekin beren burua identifikatzen ez duten pertsonak barne, oinarrian ezkerreko planteamenduak daude.

KAPITALISMORIK GABEKO GIZARTEA JADA EXISTITZEN DA

Alternatibez hitz egiterako orduan Graeberrek hartzen duen jarrera xumea deigarria da. Ez duzu teoria miragarriarik aurkituko haren testuetan, ez kontzeptu zailegirik, ezta behin betiko soluziorik ere. Baina bai orain, hemen, ekiten hasteko heldulekuak. Etengabe hitz egiten du orain sortzen hastean gero nahiko genukeen gizarte mota, gizarte horretan funtzionatuko luketen instituzioak, prozesuak eta bertan parte hartzeko mekanismoak. Eta abiapuntua bera da baikorra: ez gaude hain urrun kapitalismorik gabeko gizartetik. “Nire ustez ‘osotasun kapitalista’ ez da existitzen gure irudimenean baizik” azaldu zuen 2011n egindako elkarrizketan. “Ez dut uste kapitalismoaren osotasun bat dagoenik. Nire ustez kapitala dago, izugarri indartsua dena, eta ordezkatzan du halako logika bat, gaur parasittoa dena bestelako milioi bat harreman sozialen bizkar, hauek gabe ezingo bailitzateke existitu”.

Kapitalaren logika horrekin paraleloan ordea, bestelako balore batzuen arabera funtzionatzen duten harreman asko daudela argudiatzen du Graeberrek: “Askoz xuxenagoa dela argudiatzea posibilitate sozial eta politiko guztiak aldi berean existitzen direla. Zenbait kooperazio modu soilik kapitalismoaren jardueragatik posible izateak, besterik gabe horrek ez ditu kontsumo gaiok edo produkzio teknikok kapitalista bihurtzen. Horrek ez ditu kapitalismoaren parasito bihurtzen, gobernurik gabe funtzionatu baitezakete faktoriek. Zenbait kooperazio eta kontsumo gaik sozialista bihurtzen ditu. Trukeko logika, ekin-tzako logika eta kooperazio logika ugari eta kontraesankor dago beti. Bata bestearekin lotuta daude, elkarren kontraesangarri, etengabeko tirabiran. Ondorioz, bada oinarri bat kapitalismoari kritika egiteko, baita hori egin bitartean kapitalismoak alternatiba guzti horiek bere baitan hartzen dituen artean ere. Egiten dugun guztia ez dago kapitalismoaren logikari lotuta. Batzuek diote egiten dugunaren %30-%40 baizik ez




GUGLIELMO CELATA / CC-BY-SA

Argentinako FaSinPat ("Fabrica Sin Patrones" edo "Patroirik Gabeko Fabrika" izenaren laburpena) lantegiko beharginak dira argazkikoak. Zanon zuen izena 2001ean hondoa jo zuen zeramikazko baldosen enpresa horrek. Langileek beren gain hartu zuten eta egun autogestionatutako usinen eredu bihurtu da. Graeberren ildokoek babesten duten politika aurre-figuratiboaren erakusgarritzat ere jo liteke, biharko mundu justuagoa gaur bertatik hasten dela erakusten baitu.

dagoela kapitalismoaren logikaren mende lotua. Komunismoa dagoeneko existitzen da batak bestearekin milioika maila ezberdinetan dauzkagun harreman gertukoetan, eta ondorioz, kontua gehiago da hori pixkanaka zabaltzen joatea eta azkenean suntsitzea kapitalaren indarra, eta ez ukazio absolutuaren ideia hori, erabat ezezaguna den zerbaitetan murgiltzen gaituena”.

Bestelako mundua hemen dago beraz. Norbaiti desinteresatuki laguntza ematen diozunean, borondatez egunero egiten dituzun ekintza guztietan, bizitza on bihurtzen duten gauza guztietan. Graeberrek eta bere ildokoek ez dute uste

mundu perfektua lortu daitekeenik. Bai ordea helburu horretara iristeko prozesua bera dela bizitza ona. Aipatutako elkarrizketako azkenaurreko galderak laburbiltzen du posizio hori: “Ezin dut imajinatu mundu bat non gu geu ez garen iraultzaileak, irauliz elkarren arteko gure harremanak, eta irauliz posible denaz dauzkagun ideiak. Honek ez du esan nahi ez dugula noizbait –agian laster, espero dezagun– lortuko mundu bat non gaur dauzkagun arazoak ez diren izango umeak beldurtzeko ipuinak baino. Baina horrek ez du esan nahi egun batean gaindituko dugunik geure buruak iraultzeko beharra. Eta horren inguruko prozesua ‘da’ bizitza ona”. ■



David Graeber eta Andrej Grubacic

Londresko Goldsmiths College eta Kaliforniako Institute of Integral Studieseko antropologia irakasleak hurrenez hurren.

Geroz eta argiago dago iraultzen garaia ez dela amaitu. Eta argi ikusten da XXI. mendeko mugimendu iraultzaile globala izango dela ez hainbeste marxismoaren tradizioan jatorria izango duen mugimendu bat, ezta mugatutako sozialismoan ere, anarkismoarenean baizik.

Leku guztietan, Ekialdeko Europatik hasi eta Argentinarraino, Seattletik Mumbaira, ideia eta printzipio anarkistak ikuspegi eta amets erradikal berriak sortzen ari dira. Maiz horien erakusgarriak ez diete beren buruei anarkista deitzen. Beste izen ugari dago: autonomismoa, anti-autoritarismoa, horizontaltasuna, Zapatismoa, demokrazia zuzena... Halere, leku guztietan aurkitzen dituzu funtsezko printzipio berak: deszentralizazioa, borondatezko kideztza, elkarri laguntzea, sare sozialak, eta batez ere, baztertzeari edozein ideia zera esaten badu: helburuak bitartekoak justifikatzen dituela; are gutxiago iraultzaren helburua estatuko boterea hartzea dela, horren bitartez ikuspuntu propioa inposatzeko pistola eskuan. Batez ere, anarkismoa, praktikaren etika gisa –gizarte berria eraikitzearen ideia “gizarte zaharraren barneko eskolan”– oinarritzko inspirazio bihurtu da “mugimenduen mugimendua” deiturikoarentzat (haren partaide dira egileak), eta helburutzat dauka hasieratik, estatuko bote-

Anarkismoa, XXI. mendeko mugimendu iraultzailea

rea eskuratzeari baino, erakustea, zilegitasuna kentzea eta deuseztatzea botere-mekanismoak, haien baitan geroz eta autonomia espazio zabala-goak eta kudeaketa parte hartzaileagoa irabazi bitartean.

Badira zenbait arrazoi esplikatzeko zergatik diren erakargarriak ideia anarkistak XXI. mendearen hasieran: begi bistakoenak, XX. mendean gobernu aparatua kontrolpean hartuz kapitalismoa gainditzeko egindako ahalegin ugarien ondorioz izandako akats eta katastrofeak. Geroz eta iraultzaile gehiagok onartzen du “iraultza” ez dela etorriko momentu apokaliptiko handi batean, Neguko Jauregiaren antzeko zera globalen batetik, gizakiaren historiaren zati handi batean gertatzen joan den prozesu luze batetik baizik (nahiz eta, gauza gehienak bezala, azkenaldian azkartu den), hegaldatze eta ihesaldiz beteriko estrategiekin, baita konfrontazio dramatikoak ere, eta izatez inoiz –hala uste dute anarkista gehienek– behin betiko amaituko ez dena.

Apur bat nahasgarria da, baina sekulako kontsolamendua eskaintzen du: ez dugu itxaron behar “iraultza osterak” egiazko askatasunak nola-koa izan beharko lukeen ideia edukitzen hasteko. Crimethink kolektiboak, anarkismo estatubatuar

garaikidearen propagandista handienak, dioen legez: “askatasuna iraultzaren momentuan baino ez da existitzen. Eta momentu horiek ez dira uste duzun bezain ohiz kanpokoak”. Anarkista batentzat, izatez, alienaziorik gabeko esperientziak sortzen saiatzea, benetako demokrazia, inperatibo etikoa da; antolakuntza orain norberaren modura eginez bakarrik –gutxienez gizarte libre batek errealitatean nola funtzionatuko lukeen erakusten duen hurbilpen zabal bat eskainiz, nola bizi ahalko ginatekeen denok noizbait–, ziurtatu dezakezu ez garela berriz desastrean eroriko. Pozik gabeko iraultzaileek, goibelek, plazer oro kausaren alde sakrifikatzen dutenek, gizarte tristeak baino ez ditzakete sortu, gizarte goibelak.

Aldaketa horiek dokumentatzeko zailak izan dira orain arte ideia anarkistek apenas jaso dutelako arreta akademikorik. Oraindik milaka akademiko marxista daude, baina ia ez dago akademiko anarkistarik. Diferentzia hori zaila da aztertzeko. Hein batean, zalantzarik gabe, marxismoak beti mundu akademikoarekin nolabaiteko kideasuna izan duelako da eta anarkismoak ez zeukan hori: marxismoa izan zen, azken finean, doktore batek asmatutako mugimendu sozial handi bakarra. Anarkismoaren historiako erreferentzia gehienek onartzen dute marxismoaren antzekoa dela oinarrian: anarkismoa aurkeztu zuen XIX. mendeko zenbait pentsalariren (Proudhon, Bakunin, Kropotkin...) asmakizun gisa eta langile klaseko erakundeak inspiratzeko balio izan zuen, borroka politikoetan engaiatu zen, korrontetan zatitu zen...

Anarkismoa, historia konbentzionalean, marxismoaren senide pobrea bailitzan aurkeztu ohi da, teoria aldetik pixka bat herrena baina ideologikoki konpentsatua, agian, pasioarekin eta egitasunarekin. Analogia bortxatu xamarra da benetan. Anarkismoaren fundatzaileek ez zuten pentsatu ezer berria asmatu zutenik. Euren oinarrizko printzipioak –elkarri laguntzea, norbere borondatez kidezea, berdintasunez erabakiak

hartzea–, humanitatea bezain zaharrak dira. Ber gauza gertatzen da estatua errefusatzearekin edo baita edozein motatako egiturazko biolentzia, desberdintasun edo dominazio ere (anarkismoak literalki “zuzendaririk gabe” esan nahi du) –are, ideia horiek guztiak neurri batean elkarrekin harremanetan daudela eta elkar bermatzen dutela dioten hipotesiarekin–. Hori guztia ez zen ikusi doktrina harrigarriki berritzaile gisa, giza pentsamenduaren baitan iraun duen joera gisa baizik, ezin dena teoria ideologiko orokor bakar baten barruan ere ulertu.

Hein batean fede bat bezala da: boterea beharrezko egiten duten arduragabekeria forma gehienak, izatez, boterearen beraren efektuak direla sineste. Praktikan, dena den, etengabeko zalantzan jartze bat dago, giza bizitzetako derri gorrezko harreman bakoitza, harreman hierarkiko bakoitza identifikatzeko ahalegina, eta haiek desafiatzea beren burua justifika dezaten, eta ezin badute –gehienetan gertatzen den bezala– haien boterea mugatzeko ahalegin bat, hartara pertsonen askatasuna handitu dadin. Sufi batek esan lezake sufismoa dela erlijio guztien atzean dagoen benetako bihotza; bada, neurri berean, anarkista batek argudiatu lezake anarkismoa dela ideologia politiko guztien atzean dagoen askatasun grina.

Erraza da eskola marxistetako fundatzaileak aurkitzea. Marxismoa Marxen burutik sortu zen bezala, leninistak dauzkagu, maoistak, althusseriarrak... (ikusi nola zerrenda estatu buruekin hasten den eta irakasle frantziarretan dibertsifikatzen den –zeintzuek, era berean, euren korrontek sor ditzaketen: lacaniarrak, foucaultiarak...).

Eskola anarkistak, kontrara, antolakuntza printzipioren batetik edo praktika moduren batetik sortzen dira ia beti: anarko-sindikalistak eta anarko-komunistak, insurrekzionalistak eta plataformistak, kooperatibistak, indibidualistak, eta abar.

Anarkistak, egiten duten horrengatik bereizten dira, eta egite horretarako euren buruak antolatzeke duten moduarengatik. Berez horrela izan da beti eta horretan pentsatzen eta eztabaizatzen pasa dute anarkistek euren denbora gehiena. Ez dira inoiz gehiegi interesatu marxistak kezkatzen zituzten kontu orokor filosofikoez edo estrategiazkoiez, adibidez, nekazariak klase potentzialki iraultzailea ote dira? (anarkistek uste dute hori nekazariak eurek erabaki behar duten zerbait dela) edo, zein da jabetza materialaren izatea? Anarkistek joera gehiago dute eztabaizatzeke ea zein den asanblada bat antolatzeke modu benetan demokratikoa, eta zein puntutan antolakuntzak uzten dion jende guztiaientzako tresna izateari eta hasten den norbanakoen askatasuna higatzen. “Lidertza” benetan txarra al da? Aldi berean euren buruei galdetzen diote botereari kontra egitearen etikaz: zer da ekintza zuzena? Norbaitek beste norbait kondenatu beharko ote luke estatu buru bat erailtzeagatik? Noiz da bidezkoa adreilu bat botatzea?

Marxismoak, modu horretan, estrategia iraultzaileari buruzko diskurtso analitiko edo teorikoa izateko joera eduki du. Eta anarkismoak jo du praktika iraultzaileari buruzko diskurtso etikoa izatera. Eraitza: marxismoak praxiari buruzko teoria distiratsuak produzitu ditu eta oro har anarkistak izan dira praxiarekin berarekin lanean aritu izan direnak.

Momentu honetan, badago nolabaiteko haus-tura anarkismoaren belaunaldien artean: euren formazio politikoa 1960 eta 1970eko hamarkadetan jaso zutenen —eta maiz joan den mendeko ohitura sektarioak astindu ez dituztenen— edo


sinpleki termino horietan funtzionatzen dutenen, eta ekintzaile gazteagoen artean, askoz informatuagoak, besteak beste, ideia indigene-kin, feministekin, ekologistekin edo kultural-errebeisionistekin. Aurrenekoak Federazio Anarkisten bidez antolatzen dira, IWA¹ NEFAC² edo IWW³ kasu. Bigarrenek mugimendu sozial globalaren sareetan lan egiten dute nagusiki, Herrien Ekintza Globala bezalako sareetan, Europako eta beste lekuetako kolektibo anarkistak batzen dituen, Zeelanda Berriko ekintzaile maorietatik hasita, Indonesiako arrantzaleak edo Kanadako posta-langileen sindikatua bezalako taldeak. Bigarren talde hori —zeina izenda dezakegun modu anbiguoan “a minuskuladun anarkista” gisa—, puskaz nagusi da orain. Baina sarri hori zaila da esaten, haietako askok ez dituztelako beren afinitateak oso altu oihukatzen. Izan ere, ez dira gutxi sektarismoaren kontrako eta zabal-tzearen aldeko printzipioak hain serio hartzen dituztenak, ezen uko egiten baitiote euren buruak anarkistatzat jotzeari arrazoi horixe bera dela medio.

Baina ideologia anarkistako manifestazio oro-tan agertzen diren hiru ideia funtsezkoak anti-estatua, anti-kapitalismoa eta politika aurre-figu-ratiboa dira (hau da, kontzienteki sortu nahi dugun munduaren antza duten antolatzeke moduak. Edo, 36ko Gerra Zibileko historialari anarkista batek esan zuen moduan “ez bakarrik ideiez pentsatzeko ahalegina, etorkizuneko ger-takariez eurez ere bai”). Hori badago edozein kolektibotan, “jamming collectives” delakoetatik Indymediaraino, denak jo ditzakegu anarkistatzat zentzu berri honetan. Zenbait herrialdetan, oso maila mugatuan baino ez dago harremanik aldi

1 International Workers' Association, nazioarteko sindikatu anarkisten federazioa. AIT siglekin ezagunagoa da Euskal Herrian. Besteak beste, CNT sindikatua kide da.

2 North Eastern Federation of Anarchist Communists ingelesezko sigletan, frantsesez Fédération des Communistes Libertaires du Nord-Est. Egun Common Struggle izena hartu du erakunde plataformista honek.

3 Industrial Workers of the World. 1905ean sortutako erakunde estatubatuarra, langileen eskubideen alde diharduena. Indar handia eduki zuen XX. mendearen hasieran, nahiz eta “izu gorria” deituriko garaian bertako partaide askok jasandako jazarpenak eta Gerra Hotzak asko mugatu zuten erakundearen eragin-esparrua.



Mikhail Bakunin, Piotr Kropotkin eta Pierre-Joseph Proudhon teorialari anarkistak. “Marxismoaren senide pobre” gisa hartu izan da historia garaikidean anarkismoa Graeberren eta Grubacicen ustez, nahiz eta bi egileen ustez bereziki Proudhonen zenbait planteamenduk egun indarrean diren praktikak inspiratu zituzten.

berean existitzen diren bi belaunaldion artean, batez ere bakoitza egiten ari dena jarraitzeko – baina ez askoz gehiago–.

Horren arrazoietako bat da belaunaldi berria, ideologiaren puntu finenak argudiatzen baino, askoz interesatuago dagoela funtzionamendu forma berriak garatzen. Hauen artean garrantzitsuena erabakiak hartzeko prozesuan forma berriak garatzea izan da, demokraziaren kultura alternatibo baten hastapenak, gutxienez. Horien artean ikusgarrienak dira Ipar Amerikako “bilera herrikoi” ezagunak, zeintzuetan milaka ekintzailek eskala handiko gertakizunak koordinatzen dituzten zuzendaritza egitura formalik gabe.

Egiazki apur bat engainagarria da forma hauei “berri” deitzea. Anarkista berrien belaunaldiaren inspirazio iturri nagusietako bat Chiapaseko udalerri autonomo Zapatistak dira, Tzeltal eta Tojobal hiztun komunitateetan oinarritzen direnak eta kontsentsu bidezko prozesuak erabili izan dituztenak milaka urtez –orain iraultzaileek egokitu egin dituzte emakumeek eta gazteek ahotso daukatela ziurtatzeko–. Ipar Amerikan “kontsentsu prozesua” 1970eko hamarkadako mugimendu feministan agertu zen batez ere, 1960ko urteetako Ezker Berriaren gizonkeriazko lidergo estiloaren aurkako erreakzio zabalago baten parte. Kontsentsuaren ideia kuakeroengandik hartu zen eta haiek diote Sei Nazioek ins-

piratu zituztela, baita jatorrizko iparamerikarren beste praktika batzuek ere.

Kontsentsua gaizki ulertzen da maiz. Kritikak entzuten dira askotan, esaten dutenak kontsentsuak eragingo lukeela konformitate itogarri bat, baina ia inoiz ez dira kontsentsu prozesua mar-txan ikusi duen inork egindako kritikak, ez gutxienez moderatzaile kualifikatu eta esperien-tziadunek gidatutako prozesurik (Europar horrelako gauzetarako tradizio gutxi dago eta duela gutxi egin diren esperimentu batzuk apur bat “gordinak” gertatu dira). Izan ere, erabiltzen den hipotesia da inork ezin duela benetan beste inor erabat bere ikuspuntura ekarri, eta segur aski ez lukeela egin behar ere. Horren ordez, kontsentsu prozesuaren helburua da talde bati erabakitzen uztea ekintza amankomunak egin bitartean. Goitik beherako proposamenak bozkatu ordez, proposamenak lantzen dira eta berriz errebisatzen eta berrasmatzen dira, konpromiso eta sintesi prozesu bat dago, mundu guztiak onar dezakeen zerbaiteira iritsi arte. Azken etapara iristen denean, “kontsentsua aurkitzeko” momentura iristen garenean, objektzio posibleen bi maila daude: “alde batera” gera zaitezke eta horrek esan nahi du “hau ez zait gustatzen eta ez dut horretan parte hartuko baina ez dut eragotziko beste inork egin dezan”; edo “blokeatzea”, beto baten eragina daukana. Proposamen bat blokeatu dezakezu, baina taldearen oinarritzko printzipioak edo izateko arrazoiak urratzen dituela uste baduzu baino ez. Esan liteke AEBetako Konstituzioak Auzitegi Gorenari ematen dion funtzioa, printzipio konstituzionalak urratzen dituzten lege erabakiak baztertu ahal izatea, hemen edozeinen esku uzten dela, baldin eta nahiko adore badu benetan taldearen borondateari aurre egiteko (nahiz eta badiren justifikatu gabeko blokeoen kontra borrokatzeko moduak ere).

Luze segi genezake hizketan honek funtziona dezan garatu diren metodo landu eta harrigarriki sofistikatuak; talde oso handietarako moldatutako kontsentsu formez; kontsentsuak bere horre-



Politika aurre-figuratiboa

Antolakuntza orain norberaren modura eginez bakarrik –gutxienez gizarte libre batek errealitatean nola funtzionatuko lukeen erakusten duen hurbilpen zabal bat eskainiz–, ziurtatu dezakezu ez garela berriz desastrean eroriko. Pozik gabeko iraultzaileek, goibelek, plazer oro kausaren alde sakrifikatzen dutenek, gizarte tristeak baino ez ditzakete sortu”

tan nola indartzen duen deszentralizazio printzipioa, bermatuz inork ez duela aurkeztu nahiko talde handien aurrean proposamenik beharrezkoa ez baldin bada, genero berdintasuna ziurtatzeko moduez eta gatazkak konpontzekoez... Gakoa da hau demokrazia zuzen forma bat dela, normalean izen horrekin lotzen dugunaren diferentea –edo, baita, aurreko belaunaldietako anarkista europar eta iparamerikarrek erabiltzen zuten gehiengo bidezko boto sistemaren desberdina, oraindik erabiltzen dena, esan dezagun, klase ertaineko asanblada argentinarraren urbanoetan (eta ez aldiz, kurioski, piketero erradikalenen eta langabetu antolatuen artean, haiek kontsentsu bidez operatzeko joera baitute)–. Mugimendu ugarien arteko nazioarteko kontaktu geroz eta gehiagorekin, sustrai-sustraitik tradizio erabat diferenteak dituzten Afrikako, Asiako eta Ozeaniako talde indigenak sartuta, ikusten ari garena zera da: “demokrazia” hitzak esan beharko lukeenaren berrikuste globala, munduan diren botereek egun sustatzen duten parlamentarismo neoliberaletik ahalik eta urrutien dagoena.

Berriz ere zaila da sintesi espiritu honi jarraitzea dagoen literatura anarkista gehiena irakurritz, euren indar gehienak kontu teorikoetarako baliatzen dituzten pertsonak baitira –probabilitate



Anarkistek, marxisten aldean, joera gehiago dute egileen ustez eztabaidatzeko ea zein den asanblada bat antolatzeko modu benetan demokratikoa edo zein puntutan antolakuntzak uzten dion jende guztiarentzako tresna izateari eta hasten den norbanakoen askatasuna higitzen. Argazkian Santutxuko Gazte Asanblada.

handiz, logika dikotomiko sektario zaharrari gehien eusten dioten pertsonak— sortzen ari diren praktiken forma berrietan erabili ordez. Anarkismo modernoa zenbatu ezin diren kontraesanez beterik dago. A minuskuladun anarkistek apurka-apurka aliatu indigenen eskutik ikasitako ideiak eta praktikak berenganatzen dituzten bitartean eta euren antolatzeko moduetan eta komunitate alternatiboetan txertatzen, literatura idatziko arrasto nagusia *Primitibisten* sekta baten jaiotza izan da, talde oso eztabaidagarria, zibilizazio industrialaren erabateko abolizioaren alde dagoena, baita, zenbait kasutan, laborantzarekin ber gauza egitearen alde ere. Hala eta guztiz ere, denbora kontua baino ez da logika zaharrak bidea libre uztea kontsentsuan oinarritutako taldeen praktikaren antz handiagoa izango duen zerbaiti.

Zer litzateke sintesi berri hau? Egituratuko litzukeen zenbait lerro jada antzeman daitezke mugimenduaren baitan. Nabarmenduko nuke etengabe anti-autoritarismoari jarri zaion arreta eta zabalkundea, klase erredukzionismotik urruntzea “dominazioa agertzen den eremu guztiak” hartzen saiatuz, hau da, ez bakarrik estatua

seinalatuz, genero harremanak ere bai; ez harreman ekonomikoak bakarrik, kulturalak ere bai, ekologia, sexualitatea, eta askatasuna, hura bila daitekeen forma bakoitzean, eta bakoitza ez bakarrik autoritate harremanen prismaren bidez, kontzeptu aberats eta ugariagoen bitartez baizik.

Hurbilpen honek ez du produktibitatearen amaigabeko zabalkundearen alde egiten ezta teknologiak neutralak direla dioten ideia babesten ere, nahiz eta ez dion teknologiari uko egiten *per se*. Kontrara, harekin senidetzen da eta egokia denean erabiltzen du. Ez ditu instituzioak baztertzen *per se*, ezta forma politikoak *per se* ere. Saiatzen da ekintzarako eta gizarte berrirako instituzio eta forma politiko berriak sortzen, biltzeko, erabakiak hartzeko, koordinatzeko forma berriak txertatuz, kideko taldeekin eta elkarrizketa-egiturekin jada funtzionatzen duen ildoan. Eta ez ditu erreformak kondenatzen *per se*, ez hori bakarrik, erreformistak izango ez diren erreformak definitu eta lortzeko borrokatzen du, jendearen berehalako beharrei kasu eginez eta euren bizitzak hemen eta orain hobetzen saiatuz, lorpen handiagoetarantz ibili bitartean, azkenik, transformazio erabatekoraino.

Eta noski, teoriak egokitu beharko du praktikara. Guztiz eraginkorra izateko anarkismo modernoak gutxienez hiru maila uztartu beharko ditu: ekintzaileak, herri antolakundeak eta iker-tzaileak. Problema oraintxe bertan da, ohitura zaharrak –mundu intelektualeko zati handi batean oraindik dabilen mozkorraldi marxista– gainditu nahi dituzten intelektual anarkistak ez daudela seguru euren rola zein izan behar den. Anarkismoak pentsakorra izan behar du. Baina nola? Puntu bateraino erantzunak begi bistakoa dirudi. Ez luke inor leziatu beharko, ezta katedra ezarri ere, are gutxiago norbera pentsatu irakasle terminotan, entzun baizik, esploratu eta aurki-kuntzak egin. Kanpora atera eta esplizitu egin praktika erradikal berrien azpian dagoen logika tazitua. Ekintzaileen esanetara jarri informazioa eskainiz, eta ustez objektiboak diren diskurtso autoritarioen atzean tentuz ezkutatuta dauden elite dominatzailearen interesak erakutsi, gauza berari buruzko bertsio berri bat ezartzen saiatu baino. Baina aldi berean, askok onartzen dute borroka intelektualak bere zeregina berrindartu behar duela. Asko hasiak dira seinalatzen gaur egungo mugimendu anarkistaren oinarritzko ahultasunetako bat dela, demagun Kropotkin, Reclus edo Herbert Readen garaiekin alderatuta, hain zuzen sinbolikoa dena deskuidatzea, alderdi irudikorra, eta teoriaren eraginkortasunaz ahaztea. Nola pasa etnografiatik ikuspegi utopikoetara –idealki, posible diren ikuspegi utopiko guz-tiak bilduz–? Ez da kasualitatea AEBak bezalako herrialdeetan anarkista gehien errekrutatu dituzten pertsonak idazle feministak izatea, Starhawk edo Ursula K. Le Guin bezala.

Hau gertatzen ari da anarkistak teoria multzo garatuagoa duten bestelako mugimendu sozialen esperientzia berreskuratzen ari diren heinean, gertuko zirkuluetatik datozen ideiak, izatez, anarkismoak inspiratuta. Har dezagun adibidez eko-

nomia parte hartzailearen ideia, ikuspuntu anarkisten artean nagusietako bat, ekonomia anarkista tradizionala osatu egiten duena eta zuzendu. Pareconeko teoriariek⁴ proposatzen dute ez bakarrik bi, baizik eta hiru klase sozial desberdin daudela kapitalismo aurreratuan: ez proletalgoa eta burgesia bakarrik, “klase koordinatzaile” bat baizik, zeinaren lana den langile klasearen ekoiz-pena kudeatzea eta kontrolatzea. Klase honek bere kontrol sistemarako behar dituen oinarritzko zuzendarien hierarkia eta kontsultoreak eta aholkulari profesionalak biltzen ditu –abokatuak, ingeniariak eta kontulari garrantzitsuak kasu–. Euren klase posizioari eusten diote ezagutzaren, kualifikazioen eta konexioen inguruan daukaten neurri bateko monopolioari esker. Emaizta gisa, ekonomialariak eta alor horretan lan egiten duten beste batzuk saiatu dira langile intelektual eta fisikoen arteko banaketa estrukturalak desegingo lituzketen ekonomia ereduak sortzen. Orain argi eta garbi anarkismoa bihurtu denez sormen iraultzailearen zentro, halako ereduak proposatzen dituztenak ari dira saiatzeko ez zehazki bandera anarkista erabiltzen, baina bai euren ideiek ikuspuntu anarkistekin daukaten bateragarritasun graduari garrantzia ematen.

Antzeko gauzak gertatzen hasi dira ikusmolde politiko anarkisten garapenarekin. Ados, alor honetan anarkismo klasikoak bazeukan jadanik abantaila marxismoaren aldean, azken horrek inoiz ez baitzuen garatu antolakuntza politikoari buruzko teoriarik. Anarkista eskola ugari egin dute maiz antolakuntza sozial oso zehatzen alde, nahiz eta sarritan batzuk desados egon bestee-kin. Hala ere, anarkismoak osotasunean joera izan du sustatzeko liberalek “askatasun negati-bo” edo “-ren askatasun” deitu izan zaien horiek, “-rako askatasunak” baino. Askotan ospatu du konpromiso hori anarkismoaren pluraltasunaren erakusgarri gisa, bere tolerantzia ideologikoarena

4 Parecon: “participatory economics” edo “ekonomia parte hartzailea” izenaren laburdura. Eredu ekonomiko hori Michael Albert eta Robin Hahnelen proposamenekin lotu izan da.

“Klase sozialetatik harago

Anarkismo berrian nabarmena da anti-autoritarismoari jarri zaion arreta, klase erredukzionismotik urruntzea ‘dominazioa agertzen den eremu guztiak’ hartzen saiatuz, ez bakarrik estatua seinalatuz, genero eta kultura harremanak ere bai, ekologia, sexualitatea, eta askatasuna, hura bila daitekeen forma bakoitzean”

edo bere sormenarena. Baina ondorio gisa, eskala txikiko antolakuntza formak garatzetik harago joateko gogoia falta izan da, eta sinetsi izan da ezastruktura handiagoak, konplexuagoak, inprobisatu daitezkeela espiritu berdinarekin.

Salbuespenak ere izan dira. Pierre Joseph Proudhon saiatu zen eskaintzen ikuspegi oso bat gizarte libertario batek funtzionatu beharko lukeen moduz. Huts egindako saiotzat jotzen da orokorrean, baina ikusmolde garatuagoetarako bidea erakusten zuen, hala nola, Ipar Amerikako Ekologista Sozialen “munizipalismo libertarioa”. Garapen azkarra dago, adibidez, langileen kontrol printzipioak –Pareconeko taldeak nabarmendua– eta demokrazia zuzena orekatzeko moduz, Ekologista Sozialek azpimarratuta.

Hala eta guztiz ere, xehetasun asko dago definitzeki: zein da anarkistaren alternatiba instituzional positibo sorta gaur egungo legegintzaren-tzat, epategientzat, poliziarentzat, eta hainbat agenzia exekutiborentzat? Nola eskaini ikuspuntu politiko bat legegintza, haren inplementazioa, esleipena eta betetzea bilduko dituen eta gainera erakutsiko duena nola egin atal horietako bakoitza forma ez-autoritarioekin –ez bakarrik epe luzerako esperantza eskaintzeko, hauteskunde-

HAGOR / CC-BY-SA



Udalerri zapatista bateko kartela, bertako antolamenduen berri ematen. Anarkismo berriak inspirazio iturri izan ditu Chiapasekoa bezalako mugimenduak.

sistemari, legegintza-sistemari eta sistema judizialari berehalako erantzuna emateko baizik, eta hartara, hautu estrategiko askori? Argi dago, inoiz ezingo da egon honi buruzko alderdi-ildorik anarkismoan, baina a minuskulako anarkisten artean sentimendu orokorra da gutxienez ikuspuntu zehatz asko beharko genituzkeela. Chiapas eta Argentina bezalako lekuetan egin diren benetako esperimendu sozialen artean eta ekin-tzaile/“akademiko” anarkisten ahaleginekin, duela gutxi sortu zen Alternatiba Planetarioen Sarea edo Kapitalismo Osteko Bizitza bezalako foroekin posible da lokalizatzen eta biltzen has-tea forma ekonomiko eta politiko arrakastatsuen adibideak, lanean hasten ari gara. Epe luzeko prozesua da argi eta garbi. Baina, tira, mende anarkista hasi baino ez da egin. ■

*Astero
irakurle gehiagok
aukeratzen dute
independentzia*

